

# Egia



**JOXERRA AIZPURUA**  
INDUSTRIA INGENIARIA

**O**rain bi urte ozono-zuloa desageru zela azaldu zen albistegietan. Antza, 2019an mende honetako daturik onenak neurtu ziren eta itxaropena pizteko baino gehiago, baieztapen zientifiko gisa saldu ziguten berria. Edozein ikaslek daki zientzian datu batek ez duela ezer ere adierazten bere horretan eta ondorioak atera ahal izateko datu-sorta zabala behar izaten dela; hortaz, albisteak harritu egin ninduen. 2020an, berriz, kontrakoa gertatu zen. Neurketen arabera, mende honetako zulorik handienetako egin zitzaion ozono geruzari, eta aurtengo datuak ez dira hobeak izan.

Iaz eta aurten gertatutakoak normaltzat jotzen ditut, jakina baita ozonoaren deuseztatzea sortzen duten substantziek atmosferan dirauten bitartean ozono-zuloak gurekin jarraituko duela, hauen bizi iraupena ehunka urteetakoak baita kasurik gehienetan.

Hala ere 2019an egindako baieztapenaren inguruan beste irakurketa bat egitea komeni da. Hego Poloan babestutako eremua da 1959an sinatutako hitzarme-

2012an, izotz urtze handiena gertatu zen urtean alegia, analisi fatalistak egin zituzten hainbat zientzi estamentutatik

nari esker, eta honen arabera ezin izan dira ustiapen komertzialak planteatu. Baina jakin badakigu bertan urrea, zilarra, uranioa, beruna, nikela, petrolio, gasa, mineral arraroak eta beste hainbeste altxor gordetzen direla izotzaren azpian, eta hori mokadu desiragarria da multinazionalentzat.

Hitzarmena hor dago, baina baita Antartikako lurren gaineko burujabetza eskaera eta hitzarmenaren eguneraketaren eskaera ere. Testuinguru horretan ulertu beharko genituzke arestian aipatu analisi interesatuak.

Antzeko egoera gertatzen da Ipar Poloan, bertan urtero gertatzen den izotz galerak bide eman baitiezaioke nazioarteko nabigazioari. 2012an, izotz urtze handiena gertatu zen urtean alegia, analisi fatalistak egin zituzten hainbat zientzi estamentutatik, hamar edo hogeitau urteetan izotzik ez zela izango iragarri. Kasu horretan ere, ondorioak azkarregi atera zirela uste dut, egoeraren larritasuna beste era batera eman izango baltz, analisi fatalistak deskalifikatzen dituztenen jarduna oztopatuko litzateke. “Gezurra da 2012an esaten zena”, “Ikus azken bizpahiru urteetan gertatzen ari den izotz errekupeazioa”, eta antzeko iritzi interesatuak 2012an egindako analisisetan oinarritzen dira. Dena den, egia da urtero uda amaieran gertatzen den izotz urtzea mendeetan gertatu denaren batez bestekotik gora segitzen duela, eta hortaz berotegiari aurre egiteko neurriak erabat justifikatuta daudela.

Egia zientifikoak datuak behar ditu eta horiek lortzeko askotan denbora behar da. ●

## 4. KANPORAKETA

### MUNGIA

Urriaren 23an, zapatua,  
17:00etan, Olalde aretoan

Aissa Intxausti Aburruza, Aitor Etxebarrizarraga Gabiola,  
Arkaitz Zipitria Mendizabal, Koldo Gezuraga Sejjido,  
Oihana Bartra Arenas eta Paule Ixiar Loizaga Legarra.



[www.bertsozale.eus/bizkaikotxapelketa](http://www.bertsozale.eus/bizkaikotxapelketa)  
[www.bertsosarrerak.eus](http://www.bertsosarrerak.eus)

# BIZKAIKO

## BERTSOLARI

### TXAPELKETA

# 2021

Antolatzailea



Babesleak:



Loguntzailea

